

Legazpi, 400 urtez aske



MENDEURREN HERRIKOIA

LEGAZPI Datozen asteotan Legazpi eta legazpiar oro herriak askatasuna lortu zueneko IV. Mendeurrena ospatzen murgilduko dira; IV. Mendeurren Batzordeak prest du egitaraua, herriko talde, elkarte, erakunde eta biztanleek osatuta





HISTORIA GOGORA EKARRIZ



» EGITARAUA

- **Irailaren 11.** 'Eliza Legazpiko historian' libururen aurkezpena. Kultur Etxea, 19:00.
- **Irailaren 12.** Askatasunaren Eguna. Agintariei harrera. Euskal Herria plaza, 12:00. Antzerkia, Domingo Agirre eskolako haurren eskutik. Euskal Herria plaza, 12:45. Erakusketa zabaltea. Kultur Etxea, 13:15.
- **Irailak 13.** 'Legazpi STOCK' aukera paregabeen azoka. Ilintik antolatua. Euskal Herria plaza, 10:30-19:00.
- **Urriak 4.** 'Legazpi, 400 urtez aske', herriko taldeen ikuskizuna. Kirolegia, 19:30.
- **Urriak 12.** 'Aizkorri Barrena' mendi marxa. Brinkola, irteera 07:00-09:00. www.legazpiko-udala.info/400urte/eu/

Ikuskizuna » Legazpiko taldeek 'Legazpi, 400 urtez aske' ikuskizuna egingo dute herriko historiaren gertakari handienak gogora ekarriz.

Azken lau mendeetako historiaren laburpena egitea dute helburu Legazpiko kutur taldeek. Seguratik banatu zirenetik gaur egunera herriak izan duen bilakaera historikoa azalduko dute musikaz, dantzaz, irudiz, argiz eta kantuz lagunduta. Denera hamalau taldek parte hartuko dute, gaztetxoetatik hasi eta helduetaraino, hiru ehun pertsonatik gora.

Ikuskizuna egiteko ideia 2007ko azaroan sortu zen. Udalk herriko kultur talde denak bildu zuten eta iristear zegoen 2008ak zuen garrantzia kontuan hartuz ikuskizun bat presta zezaten proposatu zien. Ordutik buru-belarri ari dira lanean Korosti eta Sustriak dantza taldeak, Santikutz eta Buztindegij jubilatuen abesbatzak, Doinua musika eskola, Alai-

tasuna errondaila, Goiz Deiako txistulariak, Legazpiko musika banda, Coros y Danzas Sonos de Extremadura La Bellota taldea, Bertso Olariak bertso eskolako ikasle eta irakasleak, Danborradako eta San Joan Alardeko ki-deak, txalapartariak eta trikitalariak.

Lehen pausoa ikuskizunerako ideiak biltzea izan zen. Egindako bilerean talde denek parte hartuko zuten ikuskizuna izan behar zela adostu zuten, denek batera herriko historia kontatuko zuten ikuskizuna. Hala, Legazpiko azken laurehun urteetako historia

zabaleko datu eta gertakizun garrantzitsuenak hartu eta talde den artean ikuskizunaren gidoia idatzi zuten. Behingidoia amaituta talde bakoitzak egin beharrekoa zehaztu zuten, lehenbailehen lanean has zitezten.

Irailaren entsegu orokorrak, urriaren 4an ikuskizun handia

Talde bakoitzak bere bidea egin zuen, bakoitzak beharko zituen jantziak prestatzen, biltzen edo egiten, entseguak egiten eta ideia berriak proposatzen. Hala ere, lan guztia koordinatzeko parte hartuko duten taldeetako kideez osatu-

tako lan-taldea osatu zuten, eta talde hori arduratu da hari guztiak lotzeaz. Irailaren parte hartuko duten hamalau taldeak bilduko dira entsegu orokorrak egiteko, ordurako eszenatokia non joango den, argiak noiz piztu behar diren, irudiak noiz agertu behar diren eta talde bakoitza eszenatokian non kokatu behar den jakingo baitute.

Urriaren 4an Bikuña kiroldegian elkartuko dira legazpiarrik, parte hartuko dutenez gain mila pertsonatik gora sartzen baitira ikusle modura. Sarrearak irailaren 15etik aurrera egongo dira salgai herriko liburu-dendetan.

«Mendeurrenaren aitzakian harremanak sendotu nahi ditugu Goierriekin»

SOTERO PLAZAOLA » Legazpiko alkatea eta IV. Mendeurren Batzordeko kidea

Gertaera garrantzitsua ospatzen dute aurtin legazpiarrek, lau-ehun urte igaro baitira herri gisa askatasuna lortu zutenetik. Seguratik banandu zirenetik laugarren mendeurrena ospatzeko hainbat ospakizun antolatu dituzte eta horiek denak koordinatzeko batzordea sortu zuten 2007ko irailean. Sotero Plazaola alkatea IV. Mendeurren Batzordean ari da.

Zergatik erabaki zen Batzordea sortzea?

Urte garrantzitsua da Legazpirentzat 2008a, Seguratik banatu ginetik lau mende pasa baitira. Hori kontuan hartuz modu batera edo bestera ospatu egin behar zela garbi zegoen eta hori izan zen Batzordea sortzeko arrazoiak. Lan handia eskatzen du dena antolatzeko eta



ESKEINE LEGORBURU

horregatik herritarrei irekitako eta zuzendutako zerbaitek behar zen. Horrela, Udaleko kultur teknikariaren laguntzaz, lan-talde bat sortzea erabaki genuen.

Zein dira Batzordearen helburuak?

Azken batean ospakizun horien guztien helburua Legazpiren iragana ezagutaraztea da, iraganean zer izan ginen eta nola jokatu genuen plazaraztea. Hori guztia erakusteko eta azaltzeko hainbat ekintza antolatu dira urte guztian zehar eta hemendik urte amaiera ere badago zer ikusi, entzun eta ezagutu. Legazpiren iragana azaltzea helburu duten ekintzak antolatzeko da Batzordearen lana.

Nori zuzenduta dago Batzordea? Edozein herritarrek parte har de-


zake Batzordean, herri guztiari zabali dago. Azpimarratu behar da, gainera, herritarren erantzuna bikaina izaten ari dela eta, horri esker ekintza asko auzo-lanean egingen ari gara: inauterietan egin ziren ikuskizuna eta antzerkia (Domingo Agirre eskolaren eskutik), *Eliza Legazpiko Historian* liburua, urriaren lauan herriko taldeek eskainiko duten ikuskizuna edo urriaren hamabian Aizkorri barrera egingo den mendi marxa, esaterako. Gainera, esan behar da auzo-lan hori gabe ekintzak izugarri garestituko lirakeela eta ez lukeela horrenbesteko arrakastarik izango.

Auzo-lana beti izan da herriaren nortasuna indartzeko tresna. Legazpin ere hala izan al da?

Garbi dago historian zehar legazpiarrek ez dutela sekula amore eman eta herri-sentimenduak bultzatuta gauza oso garrantzitsuak lortu dituztela; horren adibide dira esaterako Araba eta Gipuzkoako Partzuergo Orokorrean duen lekua, Gipuzkoan lehena izatea hiri handi batetik askatzen edo Elizaren primizia eta harremanak zirela eta Lazkano Etxearen kontra eta Segurako Elizaren aurka gogor borrokatu izana. Baina gaur egun ere Legazpi baditu bere buruaz harro egoteko arrazoiak.

Nolako da gaur egunean Legazpi Segurarekin daukan harremana?

Legazpi betidanik Goierriko herria izan da: antolaketa politikoa, harreman ekonomikoetan, ohituretan, hizkeran... Horregatik, mendeurren hau aitzakia bezala erabili nahi dugu Goierriko gainerako herriekin harremanak sendotzeko eta lotura historikoak aldarrikatzeko. Aspaldian ez dugu ezer Seguraren kontra eta ez beste inoren aurkare. Tarka haren arrazoiak desagertu ziren.



» MENDI MARTXA

- **Izena.** 'Aizkorri barrena'.
- **Eguna.** Urriaren 12an, igandea.
- **Ibilbideak.** Bi zehaztu dira: motza (16 km) eta luzea (31 km).
- **Elkargunea.** Brinkola, irteera eta bukaera.
- **Ibilbide motza.** Antsumaitz, Oazurtza, Erromes Bidea, Katabera, Trikuetxeta eta Bederatziurrieta.
- **Ibilbide luzea.** Antsumaitz, Oazurtza, Aizkorrondo, Iturzabal, Sandrati, Pagazuloeta, Oltza, Arbelar, Artzanburuzabal, Katabera, Trikuetxeta eta Bederatziurrieta.
- **Izena emateko.** Aurrez internetez (www.izadi-zaleak.com) edo toki hauetan: Legazpiko Kiroldetgia, Urbeltz taberna, Izadi-Zaleak elkarte. Egunean bertan Brinkolan, irteerako gunean.
- **Ordaintzekoa.** Aurrez 10 euro, egunean bertan 12 euro.
- **Festa.** Eguerdian eta mendi martxa bukatutakoan erromeria egingo dute Brinkolan.



Aizkorri barrena oinez

Mendi martxa » Aizkorriren magalean distantzia luzeko ibilaldia egingo dute legazpiarrek urriaren 12an, Euskal Herri osora zabaldutako martxan.

Legazpik askatasuna lortu zueneko urteurrenean ospatuko duen beste ekintza bat mendi martxa da. Legazpi harana Aizkorri Parke Naturalaren atean dago eta ingurune zoragarri hori aprobetxatu nahi izan dute Euskal Herri maila-

ko mendi martxa antolatzeko.

Mendi martxak baditu ospakizunetik aparte beste helburu batzuk ere. Horien artean daude, esaterako, senderismoa sustatzea, Legazpi inguruko natura eta ondare aberatsa ezagutaraztea, hala nola,

basoak eta larreak, antzinako bideak edo burdinolak. Mendi martxa aprobetxatuz, Aizkorriko Parke Naturalerako sarrera Legazpirako aldarrikatu nahi dute, herriak dituen baldintza ezin hobeak azpimarratuz: tren-geltokia, Zumaia-etik etorriko den bidegorria, ingurune zoragarria, aisia-guneak eta abar. Auzo-lana bultzatzea ere badu helburu ekintza honek, herriaren alde lan egiteko izpirituari eutsiz.

Ibilbideak

Aizkorri barrena egingo den mendi martxak bi ibilbide izango ditu: luzea, 31 kilometrokoa, eta motza, 16 kilometrokoa. Bi ibilbideek antzinako bideak zeharkatu dituzte: Arabako bidea edo Aizkorrondo mandabidea, Bioz-kornako bidea, legazpiarrek Arantzazura joateko erabiltzen duten Erromes bidea, zegamarrek erabiltzen dutena eta abar. Historiaz betetako bideak dira eta, ho-

rregatik, ibilaldi egunean inguru-neari eta historiari buruzko azalpenak emango dituzte.

Bi ibilbideek Brinkolan izango dute hasiera eta amaiera. Ibilbide luzea honako lekuetatik igaroko da: Antsumaitz, Oazurtza, Aizkorrondo, Iturzabal, Sandrati, Pagazuloeta, Oltza, Arbelar, Artzanburuzabal, Katabera, Trikuetxeta eta Bederatziurrieta.

Ibilbide motzak, aldiz, honako guneak zeharkatuko ditu: Antsumaitz, Oazurtza, Erromes Bidea, Katabera, Trikuetxeta eta Bederatziurrieta. Ibilbide luzearen inguruko erreportajea eta bi ibilbideei buruzko informazio zabalak eta diaporamak nahiz argazkiak Izadi-Zaleak mendi elkartean webgunean ikus daitezke: www.izadi-zaleak.com/mendi-martxa.

Ibilaldiaren ondoren festa

Behin mendi martxa amaituta festa giroa nagusituko da Brinkolan, arratsalderako festa antolatu baitute. Beste behin ere auzolanean egingo dute jaia, mendi martxaren gainontzeko antolakuntzaren antzera.

Izadi-Zaleak, Arriurdin, Armuño eta Burdinola elkarteetako ki-deak zein Gaztetexekoak, beste askoren artean, antolakuntzan murgilduta daude eta beraiek izango dira bi ibilbideetan zehar puntu ezberdinetan kontrolak egingo dituztenak edo kamisetak banatuko dituztenak, esaterako.

Mendi martxan parte hartzeko izena ematea nahitaezkoa da. Aldez aurretik internet bidez eman daiteke izena edo egunean bertan sarreran ere bai. Mendi taldeen bidetzere eman daiteke izena.

Legazpiren historia ezagutzeko erakusketa

Erakusketa » Eskuizkribuz osatutako bilduma Kultur Etxeko erakusketa aretoan egongo da ikusgai irailaren 12tik urriaren 10era.



Legazpi hiriarren sorrerako idatziak eta planoak, liburu zaharretan. E. LEGORBURU

1608 urte garrantzitsua izan zen legazpiarrentzat, herriak Segurako Hiribilduaren mendekotasunetik askatzea lortu baitzuen. Handik aurrera, Legazpi haraneko udal propioa izango zuen eta, horrekin batera Batzar Nagusietan eserlekua.

Baina askatasuna lortzeko ibilbidea ez zen batera samurra izan. XVII. mendearen hasieran, ordea, aldeko faktoreek bat egin zuten eta Legazpi aspaldiko nahia lortu zuen. Arrazoi nagusien artean hauek aipa daitezke: Batzar Nagusietan Donostiako Hiribilduaren laguntza; Ogasuneko Kontseiluan eta Kontaduria Nagusietan, berriz, Cristobal de Ipeñarrieta legazpiarren bitartekaritza; eta, azkenik,

Gaztelako Ogasun Kontseiluaren diru-premia.

Horri gehitu behar zaio Espainiako Ogasun Kontseiluak Pedro Sanchez Collado epailea izendatu zuela Errege Agindua betearazteko eta doktoreak adore handiz bete zuela eginkizuna.

Legazpi Hiribildu titulua erosi egin behar izan zuen: bizilagun bakoitzeko 20 dukat ordaindu ziren, eta bi eskribauen truke 300 dukat.

Erakusketa

Gorabehera horien hainbat adibide egongo dira ikusgai Legazpiko Kultur Etxean irailaren 12tik urriaren 10era bitartean irekita egongo den erakusketan.

Hiru zatitan egongo da banatuta erakusketa aretoa. Lehen zatian askatasunarekin zerikusia duten datuak emango dira. Bigarren eta hirugarren zatietan askatasun egarriaren zergatiak azalduko

dira: ondoko herriekiko lurren jabetasuna eta aprobetxamendua, Segurako alkateak Legazpin egiten zituen ikustaldiak, justiziak egindako gehiegikeriak edo Errege Familiarekin zerikusia dutenak, esaterako.

Datu guztiak eskuizkribuetan irakurri ahaliko dira, hogeita hamar argazki baino gehiago jarriko baitira. Eskuizkribu bakoitzean esanguratsua gorriz azpimarratuta egongo da informazioaren muinera zuzenean heltzeko. Eskuizkribu originalak ere ikusteko aukera egongo da. Argazkiez gain, Valladolidetik ekarritako hiru mapa ere egongo dira, eta Francisco de Kortabarrietak 1781. urtean egindako elizbideen planoak ere bai. Lau mapa horiek antzina Legazpi nolako zen erakusten dute.

Erakusketa Legazpiko Udal Artxiboko baliabideekin egin da bere osotasunean, bertan lortu baitituzte ikusgai dauden eskuizkribu guztiak. Ohiko ordutegian egongo da irekita: 17:00etatik 20:30era.

A Azoka


Stock azoka egingo da Legazpin irailaren 13an

Legazpiko merkatariek ere bat egin dute IV. mendeurrenko ospakizunekin. Hala, herriko dendarien Ilinti elkarteak hilabetean Mendeurrenaren erreferentziak jarriko dituzte euren saltokietan.

Herenegun, irailaren 5ean, hasi zuten ekimena legazpiar merkatariek. IV. Mendeurrenaren ospatzeko denda bakoitzean alfombra gorri bat eta zuhaixka bat jarri dituzte, ospakizunaren adierazle gisara. Denda barruan, berriz, Mendeurrenko oroigarria edukiko dute, erosleek eta bisitariak ikurra nolako den ikus dezaten.

Dendetako adierazgarriak hilabetean edukiko dituzte, urriaren 5erabarteraino.

Bestetik, irailaren 13an, datorren larunbatean, Stock Azoka egingo da Legazpiko plaza nagusian, Euskal Herria enparantzan. Dendarien salgaiak modu onean erosteko aukeraz gain, oroigarria eta liburuak ere egongo dira.



Mendeurrena betiko gogoan

Oroigarri bat egitea adostu zuten IV. Mendeurreneko Batzordeak udalerrira sortu zenetik 400 urte bete direla ospatzeko. Oroigarria ekitaldi nagusietan banatuko zaie antolatutako diren ekintzetan parte hartu duten erakundeen ordezkariari. Nabarmendu diren herritarrek ere jasoko dute oroigarria, eta baita Legazpi pira etorriko diren agintari politikoek ere.

Harriartifizialez egindako pieza da eskultura, hamabi zentimetro luze dituen eta zabalean lau; al-

tueran, bestalde, hamahiru zentimetro eta erdi izango ditu. Oroigarriak bi irudi desberdin ditu. Goiko aldean, eskuinean, laugarren mendeurrena adierazten duen logoa; behean, ezkerretara, Legazpi antzinako elizatik gorde diren irudi geometrikoak. Irudi horiek ere oraindik ere ikusgai daude Kontsejura begira dauden paretan.

Berregeita bost euroren truke edozein herritarrek ere oroigarria eskuratzeko aukera du. Horretarako, Legazpi Kultur Etxean eskatu beharko du aurrez.

'Legazpin euskarak herdoilik ez' kanpaina

Euskara » Legazpi euskaltzaleen Zingi Zango elkarteak egitarau oparoa antolatutako du, euskara suspertuz festa egiteko.

Hilabete eta erdi iraupenean, askotariko edukia sakelean, eta hizkuntza bat mingainean: euskara. Legazpin euskara biziberritzeko eta indartzeko kanpaina antolatutako du Zingi Zango elkarteak, herritarren kontzientziak pizteko eta euskararen inguruan urtero udazken hasieran egiten duten festari kanpaina handiaren edukia emanez.

Irailaren 10etik urriaren 24era garatuko dituzte euskaltzaleek jarduerak. Hona egitaraua:

Irailak 10, asteazkena. Zingi-Zangoren ikus-entzunezkoaren aurkezpena. Anjel Alkain aktore

ezagunak esketx bat antzeztuko du. Latxartegi aretoan, 19:00etan.

Irailak 14, igandea. Erromeria eta Euskal Jaia. Ardanbidetako zelaietan, 12:00etatik aurrera.

Irailak 30, asteartea. Oinatz Bengoetxea pilotariak zaleen galderari erantzungo die. Urbeltz pilotalekuan, 18:30ean.

Urriak 2, osteguna. Euskal Blogosferari buruzko mahai-ingurua. Honako lagunek parte hartuko dute: Luistxo Fernandez, Joxe Aranzabal eta Haritz Rodriguez. Kultur etxean, 19:00etan.

Urriak 16, osteguna. Anjel Alkain aktorearen hitzaldia. Kultur etxean, 19:00etan.

Urriak 24, ostirala. Bizkaiko txapeladunen bertso saioa: Xabi Paia, Jon Elbeita, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Gai jarritan: Xabier Amuriza. Latxartegi aretoan, 22:00etan.

'Eliza Legazpiko historian' liburu mardula irailaren 11n aurkeztuko dute

IV. Mendeurrenaren aitzakiarekin, liburu berezia argitaratuko du aurtun Legazpi Udalak, Burdinola Elkartearen laguntzaz: *Eliza Legazpiko historian*. Liburu mardula bezain erakargarria. Liburuaren egilea Antonio Prada Santamaria historian doktorea da, eta ar-

gazki ugariz lagunduta argitaratuko da.

Jatorrizko bertsoia Burdinola Elkartek kaleratuko du *Historia eclesiástica de Legazpi* izenburupean. Aipagai duguna, berriz, laurpen bat da, herritarrek gustura irakur eta dasta dezaten moldatua.

Liburu, 310 orrialdekoa, zortzi kapitulu banatuta dago, eta elizarekin zerkusia duten hainbat gertakari ukitu eta lantzen ditu. Euskaraz eta gaztelaniaz badago ere, euskarazko testuak dauka lehenetasuna. Aurkezpena irailaren 11n da, kultur etxean, 19:00etan.



Legazpi herrigunearen ikuspegi orokorra, goian liburuaren bi aldaeren azalekin.

«Elizak Legazpin izan duen garrantzia adierazten da liburuan»

ANTONIO PRADA SANTAMARIA » Liburuaren egilea

Liburuaren egilea » Historiaren ikerketan Elizaren eraginari erreparatu dio Pradak, eta liburuan bildu du ondorioa.

Legazpi historia ikuspuntu desberdinetatik konta daiteke. Esaterako herriko elizaren historia kontatuz. Orain urte batzuk hasitako lanak fruituak jaso ditu eta horiek IV. Mendeurrenaren inguruan kaleratuko den liburuan bildu dituzte. Antonio Prada Santamaria k egin du *Eliza Legazpiko historian* liburu.

Nola sortu zen honelako liburu bat egiteko ideia?

Orain dela urte batzuk Legazpi Burdinola elkarteko kideek Legazpi Elizaren historiaren inguruko ikerketa egitea proposatu zidaten. Hala ere, gure herrian Elizak esparru guztietan izan dituen gorabeheren berri emateaz gain, Erdi Aroari buruz gehiago jakin

nahi zuten, garai horretan sortu eta garatu baitzen burdinaren ustiapena lurralde hauetan.

Nola lan egin duzu liburu aurrera eramaterakoan?

Lehenengo jada bagenekiena baliatzen saiatu nintzen, aurretik zeuden argitalpenak berriro kontsultatuz, eta bai azkenaldian agertzen ari diren tokian tokiko ikerketa berriak aztertuz ere. Horiez gain, iturri dokumental ezagunetara jo dut erantzun berriak lortzeko, gure historian hainbestetan aipatu dugun Legazpi Harana adierazpenaren atzean zer dagoen azaldu nahian.

Zer nolako informazioa aurkituko du irakurleak liburu honetan?

Liburu honek Legazpi Elizaren, erakundearen, azterketa lantzen du nagusiki, gure historian funtsezkoa izan dena. Izan ere betidanik elkarrekin nahastuta ibili baitira herritarrek eta elizgizonak. Betidanik gertatu izan da hori gainera, Eliza gure arbasoek jasan behar izan zituzten bizi-baldintza

txarretatik *ihes* egiteko aukera urrietako bat baitzen. Hala ere kontuan hartu behar da Legazpi herri txikia zela hemeretzigarren mende hasieran, mila biztanle inguru baitzuten. Beraz, ezin dugu herritarren eta elizgizonen harremana herri handietako herritarren eta elizgizonen artean zegoen harremanarekin alderatu. Azken batean liburu honetan Elizak Legazpin izan duen garrantzia adierazten da.

Liburu asko idatzitakoa zara. Zer moduzko esperientzia izan da hau?

Niretzat oso interesgarria izan da, eta uste dut Burdinolako kideentzat ere esperientzia ahaztezin izan dela Legazpi Eliza-erakundeaz ari gara beti ere- bere lehen urteetan zein ingurutan mugitu zen ezagutzea. Hori dena kontatu ahal izateko, gainera, inguru politiko, ekonomiko eta soziala kokatu nahi izan ditut, esparru horietan zer gertatzen zen jakin ahal izateko.